

MUk orlak banatu zizkien Hezkuntza eta Komunikazioko ikasleei

2013/06/16

Ekitaldia hasi eta amaitzeko, Elai abesbatzak kantatu zituen hainbat abesti. Horrek jarri zion tonu egokia ekitaldiari. Baita ikasleen umoreak ere. Joxe Aranzabal Komunikazioko irakasleak egin zuen hitzaldi nagusia, **“Etorkizunarekin bueltaka”**. Komunikazioa eta Hezkuntza kontuan hartuta, Aranzabalek azaldu zuen bere belaunaldiak zelan ikusi zuen etorkizuna, eta hau zertan gauzatu zen urteak igarota. Halaber, animatu zituen ikasleak bere etorkizuna landu dezaten, horretarako Antonio Machadoren poesia bat erabili metafora gisa.

Nekane Arratibel HUHEZiko dekanoa eta Iosu Zabala MUko errektoreak ere animozko hitzak izan zituzten ikasle graduatu berrientzat eta horien gurasoentzat. Ekitaldia bukatutakoan, bertaratutako guztiak Uarkapeko pilotalekuan elkartu ziren luntx baterako.

Ekitaldiko argazkiak Flickr-en ikus daitezke.

